



B5



Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimoa):
Aldatsaren beheko aldea.

Muga geografikoak

Iparraldean San Juan kalea. Hegoaldean ibarreko hainbat orube daukaz muga egiten. Ekialdetik errekarra begira dago.

Ezaugarri historikoak

Dakigunez, antxina kale honek Ibarra izen orokorra euki eban. 1960ko hamarkadan "Travesia de San Juan" izena ipini eutsien. Demokrazia ezarri zanean, Aldape izena berreskuratu eban.

Aldape toponimoa sarritan agiri da Gernikako Erdi Aroko historian, izen bereko torretxe bat egoan uribildutik kanpo-eta.

Jose Bizkarrondo izan zan sasoi baten torretxe horren jaubea. Erliebean egoan gorakadatxo bat aprobetxauta, gaur egun Merkatu plazak San Roke eta Don Tellogaz bat egiten dauen lekuan egongo zala pentsau daiteke. Torretxe hori XIX. mendera arte mantenu zan zutunik. Orduan udalak erosi egin eban botateko, eta bertan eratu eban bonbardaketara arte iraungo eban plazatxu bat.

Edifizio aitagarriak

1942-1945 urteen bitartean kale honetan egon zan Gernikako Futbol Kluba taldearen zelaia. Zelai hori bertan behera itxi ebenean "Cubiertos Dalia-JYPSA" lantegia joan zan bertara. 1940an zelaiaren beste zati baten "Regiones Devastadas" erakundeak Udal Hiltegia eregi eban. Hiltegi hori be denporak garrenean itxi egin zan eta edifizioa Udal Haurtzaindegia izateko atondu eben. 90eko hamarkadan haurtzaindegia kendu eta Hirugarren Adinekoen Eguneko Egoitza bihurtu zan.

B4



Izenaren jatorria

Gariaren salerosketarako edifizio publikoa. Toki batzuetan, gariak gainera, beste labore batzuk, janaria, merkantzia edo arbitrioak saltzeko eta erosteko biltegi lez erabiltzen zan.

Gernikakoa, ofiziala izan ez zan beste izen batez be ezaguna izan da: "la cuesta del matadero".

Muga geografikoak

Mendebaldetik Juan Calzada kalea dauka eta ekialdetik Iparragirre kalea.

Ezaugarri historikoak

Kale honetan Gernika-Lumoko kanposantua egon zan. Udal bien artean 1853an egin eta XIX. mendearen

azkenera arte erabili zan, 1895an gaurko Zallo auzoko kanposantua edegi zan arte.

Edifizio aitagarriak

Alhondigeak, 1912tik 1990era bitartean ardao biltegi izateaz gainera, hainbat zeregin bete ditu: Errege Magoak, Gargantua eta Buruandi eta Erraldoien gordeleku, Elai-Alai dantza taldearen entsaietako lokala, Gaztetxea...

Juan Calzadagaz bat egiten dauen tokian, gaur Omaetxebarria Farmaziaren parean, Foru Aldundiaren edifizio bat egoan. Gerra aurrean Foralen Kuartela izatetik 1921ean Bizkaiko Aurrezki Kutxaren sukurtsala izatera pasau zan.

ALLENDESALAZAR ETORBIDEA

B4



Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Manuel Allendesalazar y Muñoz de Salazar Lumon jaio zan 1856ko abuztuaren 15ean. Manuel Maria Allendesalazar, Montefuerteko kondearen seme, eta Angel Allendesalazarren anaia izan zan. Lanbidez injineru agronomoa, goi mailako karguak bete ebazan arlo publikoan: Espainiako Bankuaren Gobernadorea, Hazienda Ministroa, Nekazaritza Ministroa, eta abar. Udaldiko oporrak Udetxea jauregian egiten ebazan. Madrilen hil zan 1923ko martian.

Muga geografikoak

Mendebaldean Zearreta eta Iturburu ditu mugea egiten. Ekialdean Allendesalazar kalea.

Edifizio aitagarriak

Udetxea Jauregia: Manuel Allendesalazarrek bertan igaroten ebazan oporrak. Gaur egun Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren egoitza eta Dokumentazio Zentroa da.

Lumorako Bidea (Kurutze-bidea): Andra Mari eleizatik Lumoraino doan bide honek 14 kurutze daukaz alboetan Lumoko "Kurutze-bidea" osotuz. Antza danez, kurutzeak 1932an amaitu ziran, baina ez ziran jarri Gerra Zibilera arte.

Henry Moore eta Txillidaren eskulturak: Henry Moorek brontzez eginiko eskulturak atal bi ditu: irudi handienak ama bat irudikatzen dau eta irudi txikiena dan semea babesten dau. Txillidaren eskultura be, zati bi dagoz: erdian dagoan pieza burdinez eginda dago eta ingurukoa porlanez eta burdin zatiakaz. "Gure Aitaren Etxea" dau izena.

Zigerta-goikoa baserriaren armarría: armarrí honek besteak beste apaingarri honeek daukaz: zuhaitz errotu bat, otso bat eta "caldero" edo lapiko bat.

B4



A4



Izenaren jatorria

Etimologia (patronimikoa):

Angel Allendesalazar Lumon jaio zan 1854ko irailaren 24an. Biblioteca del Bascofilo liburu entzutetsuaren egilea izan zan, eta Gernika eta Lumo bat egiteko ekimenaren buru. Beste lan eta proiektu batzuen artean, 1884an errekearen kanalizazioa bultzatu eban.

Muga geografikoak

Hegoaldean Karmelo Etxegarai kaleak eta iparraldean Pedro de Elejalde kaleak egiten deusie mugea.

Ezaugarri historikoak

Antxina kale hau Saraspe plazaraino heltzen zan, baina 1965ean Karmelo Etxegarai izena ipini eutsien Saraspetik Batzar Etxerainoko zatiari, bertako artxiboko arduraduna izan zanaren omenez.

ALLENDESALAZAR KALEA

Edifizio aitagarriak

Alegria Jauregia: Jauregi hau XVIII. mendeko matxinadako erasoakaitik hondatu zan, eta Erdi Aroko torretxe baten gainean eregi zan, haren saetera bat eta leiho bat kontserbatuz. Aurrealdean Allendasalazar-Gortazarren familiako armarría dauka. Armarrí hori XX. mendean ipini eutsien, urian bertan egoan "Casa de las Pinturas" etik ekarrita, etxe hori galdu egin zan-eta. Gaur egun edifizio hori Euskalerría Museoaren egoitza da eta bertan gure herriaren jatorria, inguru fisikoa, arkeologia eta Euskal Herriaren garapena eta kultura erakusten dira.

Andra Mari eleizea: uria eta eleizatea bat egin aurretik, Allendesalazar kale honek egiten eban mugea bien artean Gernikako iparraldean, Andra Mari eleizatik San Juan kaleraino. Mugea hain zehatz be, eleizearen teilatutik jausten zan tangadeak marketan eban ("la gota que caía de la teja de la iglesia") eta arrazoi horregaitik ezin izan zan amaitu eleizearen iparraldeko ataria proiektuan egoan moduan, izan be, Lumoko udal-lurretan sartzen zan Gernikakoa zan eleizearen zati hori.

"Guernica" murala: Picassoren koadrua irudikatzen dauen mosaiko hau, Gernika-Lumogaz anaitasun ituna daukan Alemaniako Pforzheim uriak gure herriari egin-dako oparia da.